

ANIMALIAK FRUTAK

Testua: ANTONIO RUBIO eta XABIER OLASO

Irudiak: ÓSCAR VILLÁN

Kartoi gogorra. 16 x 16 cm. 8 €/bakoitza.

PEQUEÑO DRAGÓN SARIA 2018 (LIBRERÍA EL DRAGÓN LECTOR)

-Euskara:

Animallak: 18 or. ISBN 978-84-9172-122-2

Frutak: 18 or. ISBN 978-84-9172-123-9

-Gaztelania:

Animales: 18 or. ISBN 978-84-8464-485-9

Frutas: 18 or. ISBN 978-84-8464-487-3

-Galegoa:

Animals: 18 or. ISBN 978-84-8464-484-2

Froitas: 18 or. ISBN 978-84-8464-486-6

-Katalana:

Animals: 18 or. ISBN 978-84-16804-75-7

Frutes: 18 or. ISBN 978-84-16804-76-4



"Animaliak" liburuak oihaneko piztien multzo ederra biltzen du, guztiak ezberdinak, guztiak adiskide. "Frutak" liburuak, bestalde, gozo-gozoak diren hainbat jakiren eta beroien fruta-arbolen bildumatxoa egien du. Bi horiek, hain justu ere, [Ilargian kulunkantari](#) bildumako izenburu berriak dira. Liburuon hartzaileak, 0-3 urtera bitarteko neska-mutikoak dira, eta beraientzat berariaz ondu dira *piktograma poetiko* edo *poegrana* hauek guztiak; poesia piktografikoaren modalitate berri bat izendatzeko hitza da *poegrana* eta irakurle txikiaren "begia hezi eta belarria ezitu"ko duen irakurketa-erritmoa aurkitzean datza, Antonio Rubioren esanetan.

Bestalde, Óscar Villánen esku -1999 urteko Ilustrazio Sari Nazionala- gelditu da liburutxo hauen proposamen estetikoak. Artisan-lan hutsa da berea, erraz antzematen diren pintzelkada eta koloretako tonuez hornitua, halako moldez ere ezen ehundurak ukitzeko modukoak baitira, kasik. Hondo argiari gailtzen zaio irudia; marrazkia soil-soila eta erraz antzematekoa da, betiere Villánen beraren ikututxoa agerian dagoela. Sortzaile bien ekarpenaren alde biak -literarioa eta plastikoa- doitzean datza KALANDRAKAREN egitekoa, sortze lanean bideratu eta, finean, behin betiko argitaraldia burutu.

Ilargian kulunkantari bildumaren liburu bakoitza "erraz-erraza den eta musika-ingar handia duen ariketa poetikoa da". Gauzak horrela, bada, eskuinetik ezkerretara eta, goitik behera irakurri behar duela ikasiko du haurrak eta, halaber, orriak pasatzea bertsoen bilakaera dela.

Grafiak baino, irudiek berek hartzen dute berebiziko garrantzi komunikatiboa. Aise antzematen dira irudiak, eta hitzen antzera eratzten dira, silaba zenbatuekin. Bertsoen gisara eratzten dira: ordenatuak, neurtuak, erritmodun eta errimadunak. Haur-haurretatik bakarka irakur daitezkeen irudiak dira, finean.

Liburu bakoitza poema oso bat da eta ezaugarri hauen arabera ondua dago: haur kantutegiaren egitura poetikoaren baitan (bertso oktosilaboa, leloa eta zerrendatzea); tradiziozko kantutegiaren bitarteko poetikoak erabiltzen ditu (oihartzunak, errimak, erritmoak), eta lehenengo adinekoen interesguneei erantzuten diete.



- **Gala:** piktograma poetikoak eta poegramak.
- **Adin egokia:** 6 hilabetetik aurrera.
- **Nabarmtzeoak:** frutak eta beren fruta-arbolak, elikadura; animaliak, lagunartekotasuna, jolasa; erritmoa eta errima; ilustrazio errealistak; "begia hezi eta belarria ezitu"; testua eta irudiak identifikatzea, ikus-irakurketa; bildumaren beste izenburu batzuk: [Ilargia](#), [Bost](#), [Miau](#), [Paper-txorria](#), [Krokodiloa](#), [Zapata](#), [Violina](#), [Arbola](#); [Veo veo](#), [Limón](#).
- **Liburuaren aurrerapena:** loturara jo, liburu-azalean sakatuta.

Xabier Olaso

(Otxandio, 1964)

Hainbat libururen egilea da, bai helduentzat, bai haurrentzat ere. Nabarmentzeoak dira Pamiela etxearen eskutik plazaratutako *Auskalo! -Igarkezun eta aho-korapiloak-*, *Txuntxurrun berdeko animalien kontakizunak* (2014) eta, batez ere, Haur eta Gazte literaturako Euskadi Saria jaso zuten *Pupuan trapua* (2005) eta *Tximeletrak* (2013) poema-liburuak. Abestietarako letrak ere idatziak ditu.

Antonio Rubio

(El Puente del Arzobispo, Toledo, 1953)

Berrogei urtez maisu aritu da eta poeta ere bada; irakurtzeko eta idazteko duen grina gehitu behar zaio haur liburutegiaren eta irakaskuntzan egindako lanari. Irakurzaletasuna sustatzeko ikastaroetan eta, orobat, irakasleen prestakuntzarako ikastaroetan parte hartzen du. Faktoria K-ren *Trece Lunas* poesia-bilduma zuzentzen du. Liburu askoren egilea da.

Óscar Villán

(Ourense, 1972)

Arte ederretan lizentziaduna da (pintura espezialitatean). Hurrei zuzenduriko "[Untitxo txuria](#)" bere lehen ilustrazio-lanari esker (KALANDRAKA), 1999 urteko lehen Ilustrazio Sari Nazionala jaso zuen. Hainbat argitaletxeren eskutik argitara eman dituen hogeita hamar liburuez gain, eskultura eta argazki-lanak egin eta *kartelak* ere diseinatu ditu. Orobat, KALANDRAKAREN *Alfabetos* arte-bilduma zuzentzen du. <https://ovillan.com>

